



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2025ko urtarrilaren 6ko bilkura

Bi mila eta hogeita bosteko urtarrilaren seian, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude , JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : CHAMALBIDE Corinne.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : MATEO Jean-François.

Deialdiaren eguna : 2025ko urtarrilaren 2a

Afitxatze eguna : 2025ko urtarrilaren 2a

2. ERABAKIA: MAYOTTE UGARTEKO BIZTANLERIARI ELKARTASUNEZKO DOHAINTZA BATEN EGITEA (7.10 nomenklatura)

Auzapezak oroitarazi du iragan abenduaren 14an Chido zikloiak Mayotteko lurraldea sekulan ez bezala kolpatu duela, biztanleriarentzako zailtasunak eta arriskuak eraginez.

Frantziako estatuak funts berezi bat sortu du lurralde erakundeen, enpresen eta norbanakoen laguntza guzien bateratzeko, eta diru-baliabide horien koordinazioa eta erabilpenaren eraginkortasuna bermatzeko. Eskuratzen diren diruak interes publikora bideratu behar dira, eta diru hori isuri dutenen borondatearen arabera erabili, hots urgentziazko ekintzak eta Mayotteren berreraikitzea.

Auzapezak proposatu du ORTZAIZE herriak Mayotte lurraldea diruz laguntzea "natura-hondamendiek kalteturiko itsasoz haraindiko lurralde eta populazioen aldeko orotariko laguntzak" deituriko funtsaren bidez, zeinak "itsasoz haraindiko bizi baldintzak" programa elikatzen baitu, Frantziako itsasoz haraindiko gaietarako zuzendaritzaren ardurapean.

Auzapezaren azalpenak entzunik eta luzaz eztabaidaturik, Herri Biltzarrak,

- ZEHAZTU DU lehen aldia dela halako dohaintza printzipioa bozkatzea eskatzen zaiola Herri Biltzarrari,
- BAZTERTU DU dohaintza baten isurtzeko printzipioa (8 boz dohaintzaren KONTRA, 6 boz dohaintzaren ALDE).

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balizko boz kopurua : 14

ALDE : 6
KONTRA : 8
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiazatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2025ko urtarrilaren 6an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2025/01/16an publikatu edo notifikatu ondoan, Eta
Prefeturan pausatu ondoan 2025/01/16an.